



COVID-19-ESKOLA KIROLA. OSASUN ARDURADUNENTZAKO GIDA

- Prebentzio, jarduketa eta, hala badagokio, diziplina-neurrien berri eman erakundearen barruan jarduten duten langile eta/edo boluntario guztiei, bai eta kirolari adingabeen familiei ere. Igo protokoloa erakundearen webgunera, bai jatorrizko informazioa, bai ondorengo edozein aldaketa.
- Egin jarduerak hasi aurreko nahitaezko prestakuntza-saioa.
- Egiaztatu ere bere familiak ezagutza, onespén eta konpromiso-agiria sinatu eta entitatera bidali ez dueneko eskolumerik jarduerari ekin egiten ez diola. Egoera bera teknikariekín eta, hala badagokio, arbitroekin, jarduerak hasi aurretik.
- Erakundearen jarduerak etengabe gainbegiratu, protokoloa eta agintari eskudunek ezarritako beste edozein arau betetzen direla ziurtatzeko.
- Ezarri salbuespen egokiak aldagelen erabilerari, laguntzaileentzako sarbide-baimenari edo antzekoei dagokienez.
- COVID-19 kasu bat detektatzen denean edo jarduerak egin bitartean sintomak dituen pertsona bat detektatzen denean, jarduketa eta komunikazio egokiak koordinatu.
- COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriak betetzeak eragindako arriskuei lotutako arau-haustek erakundearen Barne Araubideari edo Diziplina Araubideari buruzko Erregelamenduan sartzeko proposamenak garatu, eta zuzendaritza-organoari edo gobernu-organoari bidali, onar ditzan.
- Protokoloa betetzen ez bada, erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoak hartu beharreko diziplina-neurriak aplikatzea proposatu.
- Erreferentzia-eredu gisa jokatu, beti maskara eramanez eta arrisku-portaerak saihestuz.
- Protokoloari buruzko edozein informazio-eskaerari erantzun.
- Eskola-kirolaren eremutik kanpo, ez egin COVID-19 infekzio-arriskua eragin dezaketen jarduerarik.
- Kirolariek neurrietara edo taldera egokitzeko izan ditzaketen egoera bereziei arreta eman, ikasteko edo egokitzeko zailtasunengatik, maila sozioekonomikoagatik, ingurune sozial eta familiarragatik...
- Konfiantza eta segurtasun giroa sortzen lagundu, eskola-kirolean parte hartzen duten kolektibo guztiak eroso senti daitezen eta jarduera segurtasunez eta modu eraikitzailean garatzen laguntzeko prest egon daitezen.

Informazio gehiago:

- Eusko Jaurlaritzaren web gunea: <https://www.euskadi.eus/pautas-actividad-fisica-y-deporte/web01-a2kirola/es/>
- Aldundiak:
Araba: <https://web.araba.eus/eu/web/araba/kirola>
Bizkaia: https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=291&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=4&codpath_biz=4|291
Gipuzkoa: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/coronavirus-informazioa>
- Osakidetza:
Zure [osasun zentruaren kontaktua](#)

Lan ordutegitik kanpoko larrialdiak: Araba: 945.244444

Bizkaia: 944.10000

Gipuzkoa: 943.461111

Aholku santarioaren telefonoa: 900 20 30 50

ESKOLA KIROLA SEGURU ETA OSASUNGARRIA

**Guztion konpromisoa ikasleek
ikasturtean zehar ariketa egin eta
giza-harremanak izan ditzaten**